



ZARAUZKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

**Zarauzko Udala  
Gizarte Zerbitzuetako Departamentua**

**Hegoaldeko herrialde pobretuetan garapen proiektuak egiteko dirulaguntzak emateko  
2024ko deialdia.**

XEDAPEN HAUEK EZARTZEN DITUZTE OINARRI ARAUTZAILEAK :

1. Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).
2. Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuak Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).



Gizarte Zerbitzuak

1. Helburua.
2. Eskaerak.
3. Onuradunak.
4. Proiektuen betebeharrak.
5. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.
6. Dirulaguntza emateko prozedura.
7. Balorazio irizpideak.
8. Ebazpena.
9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.
10. Zuzkidura eta aurrekontuko partida.
11. Dirulaguntzaren ordainketa.
12. Dirulaguntzaren xedea justifikatzea.
13. Proiektua gauzatzeko eta justifikatzeko epea.
14. Jarraipena.
15. Publizitatea.
16. Ebazpenean aldaketak ekar dezaketen arrazoiak.
17. Dirulaguntzak itzultzea.
18. Araudia.
19. Errekurtsoak.

## 1. HELBURUA

Deialdi honen helburua da hegoaldeko herrialde pobretuetan bazterkeria kausen aurka borrokatzeko eta giza garapen iraunkorra eta bidezkoa sustatzeko kooperazio-proiektuak egiteko norgehiagoka prozeduraren bidez emango diren dirulaguntzak arautzea.

Hegoaldeko herri pobretuetako leku behartsuenen garapen politiko, sozial eta ekonomikoa bultzatuko duten prozesuak eta proiektuak lagunduko dira. OCDEren GARAPENERAKO LAGUNTZAKO BATZORDEAREN LAGUNTZA HARTZAILEEN ZERRENDAN sartuta dauden herrialdeak dira.

## 2. ESKAERAK

Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren urteko deialdian zehazten den eskabide ofizialaren eredia betez egingo da eskaera, eta hilabeteko epean aurkeztu behar da, deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eskaera horiek honela egin ahal izango dira:

- Zarauzko Udalaren zerbitzu telematikoen bidez.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan adierazitako bide eta lekuetan.

Eskaria aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.



Dirulaguntzaren xede diren proiektuak erantsitako inprimaki-ereduari jarraiki aurkeztuko dira.

Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztuko da:

- Erakunde eskatzailearen arduradunaren edo ordezkariaren NANaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailearen IFZaren fotokopia.
- Erakunde eskatzailea dagokion erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- Zarautzen legalki osatutako ordezkari-tzua duela frogatzen duen agiria, halakorik balego.
- Diruz lagundua izatea nahi den proiektuaren, jardueraren edo programaren jatorrizkoa.
- Aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituenak.
- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Zinpeko aitortza, adierazten duena, batetik, sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez daukala sexuagatik diskriminazioa egin izanagatik, ez sexu-delituengatik.
- Zinpeko aitortza, erakunde eskatzailea eta tokiko erakundearen arteko lankidetzaren konpromisoa adierazten duena.
- Entitate eskatzailearen estatutuak, lehendik Udalari entregatu bazaizkio izan ezik, baina estatutuak zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu ziren adierazi beharko da, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

Eranskinak Udaleko web-orrian daude.

### 3. ONURADUNAK

Nortasun juridikoa duen irabazi-asmorik gabeko gobernu kanpoko edozein elkarte, erakunde edo instituziok eskatu ahal izango ditu dirulaguntzak; horien jarduerak bat etorriko dira oinarri hauekin, eta Zarauzko udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari-tzua.



## ZARAUZKO UDALA

### Gizarte Zerbitzuak

Salbuespen gisa, udalerrarentzat interesgarriak diren kooperazio proiektuek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Zarautzen ordezkari ofizialik ez izan.

Ezingo dute deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun izan:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Dirulaguntzei buruzkoak, 13.2 artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.
- Uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak jarritakoaren arabera, sexu-delituengatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak.
- Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak ezarritako betekizunak betetzen dituela.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren aurkako helburuak, sarbide-sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten, eta sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminazioa egiten duten pertsona fisikoak nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).
- Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatuta ez izateko eskubidea urratzeagatik zigor administratibo, laboral edo penalak jaso dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoei (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 40. artikulua).

Erakundeek, kasuen arabera, lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezakete onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez daudela. Eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordezkari ordez, erantzukizunpeko aitortzen aurkez daitezke.

ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILERan agertzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte erakunde horiek:

- Beren helburuak beteko direla bermatzeko behar adinako egitura eta gaitasun eraginkorra izatea, eta proiektuan hori behar bezala ziurtatzea.
- Tokiko bazkide bat izatea.
- Dagokion erregistroan inskribatuta egotea.

Erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu bakar bat onartuko da.



#### 4. PROIEKTUEN BETEBEHARRAK

Aurkeztutako proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hegoaldeko herrialde pobretuetako tokiko bazkide baten bidez egitea. Tokiko bazkide hori nortasun juridikoa duen erakundea izango da, irabazi asmorik gabekoa, formalki eratutakoa eta dagokion erregistroan inskribatuta egongo da.
- b) % 20an gutxienez beste diru-iturri batzuekin finantziatzea (erakunde eskatzailearen edo tokiko bazkideen ekarpenak edo beste finantziazio-iturri publiko edo pribatu batzuk). Tokiko bazkideen edo tokiko erakundeen eta beste onuradun batzuen ekarpen balioztatuak onartuko dira, frogagiriaren bidez ondo justifikatzen badira.
- c) Proiektua ekonomikoki bideragarria izan dadila, eta koherentzia egon dadila proposatutako gastuen eta egin beharreko jardueren artean.
- d) Proiektuaren aurrekontu zehaztua eta egin beharreko gastuen programazioa sartzea.
- e) Aurreikusitako emaitzak lortzeko behar diren baliabideak ondo aurreikustea.
- f) GIZA GARAPEN IRAUNKOR ETA ENDOGENOaren paradigmaman sartuta egotea.
- g) Genero-ikuspegia edukiko dute.
- h) Xede-biztanleria ez hartzea onuradun bezala, baizik eta eskubideen titular bezala.
- i) Ez izatea noizbehinkako ekintza isolatuak, gizartearen eraldatzeko estrategia zabalago batean sartuta egotea, eta etorkizuneko iraunkortasun ekologikoa eta soziala zehaztuta edukitzea.
- j) Garapen komunitarioko programen barruan burutzea, komunitate onuraduneko kideen partaidetza eta prestakuntza sustatzea, eta tokiko eta eskualdeko erakundeen garapena bultzatzea.
- k) Kultura ez inposatzea eta komunitate hartzailearen idiosinkrasia eta ingurumena errespetatzea.
- l) Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazio inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu.

#### 5. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Kostu zuzenak izango dira diruz lagun daitezkeenak, baldintza hauekin:

- a) Lurzoruak edo eraikinak erostea. Gauza berezi modura egindako erosketak izango dira, eta, nolana ere, frogatu beharko da instantzia publiko edo komunitario batentzat erosiko direla.
- b) Eraikinak eta azpiegiturak egin edo birgaitzea.
- c) Ekipoak eta materialak erosi eta garraiatzea.



Gizarte Zerbitzuak

- d) Tokiko langileen kostuak.
- e) Hara joandako langileen kostuak; Kooperantearen Estatutuak xedatutakoaren arabera, ez du gaindituko eskatutako dirulaguntzaren % 10eko muga.
- f) Tokiko giza baliabideak gaitzeko eta trebatzeko kostuak.
- g) Proiektuak funtzionatzeko kostuak, alegia, proiektua garatzeko behar diren material suntsigarriak eta beste hornidura batzuk erosteko kostuak, eskatutako dirulaguntzaren % 15eko mugarekin.
- h) Errotazio fondoa, hau da, pertsona onuradunei maileguak emateko erabiltzen den zenbatekoa. Kasu honetan, aurreikusitako itzulketen zenbatekoa eta xedea adierazi behar dira.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuaren legerian kontratu txikietarako jarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik; ez, ordea, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago zerbitzu hori hornitzen edo ematen duen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

Diruz laguntzekoak izango dira, baita, zeharkako kostuak; proiektuarekin lotutako zuzeneko administrazio eta kudeaketa gastuak izango dira, alegia, proiektua identifikatu, formulatu, segimendua egin eta ebaluatzeko direnak. Eskatutako laguntzaren % 10ekoa izango da gehienez zeharkako kostuen portzentajea.

## 6. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Dirulaguntza hauek norgehiagoka araubidez emango dira, eta prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean urtero argitaratuko den deialdiaren bitartez.

## 7. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Irizpide eta balorazio-muga hauek kontuan izanda onartuko diren proiektuak hautatuko dira (gehienez 100 puntu). Gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten proiektuak ez dira diruz lagunduko.

Inplikaturako aldean gaitasunari buruzkoak (gehienez 21 puntu):

- Erakunde eskatzaileak garapeneko lankidetzan proiektuetan duen esperientzia (gehienez 7 puntu).
- Tokiko bazkidearen esperientzia eta gaitasuna (gehienez 7 puntu).
- Elkartearen parte-hartzea Zarauzko sentsibilizazio jardueretan eta elkartasun-sarean (gehienez 7 puntu).

Proiektuaren kalitate teknikoari eta inpaktuari buruzkoak (gehienez 67 puntu):



Gizarte Zerbitzuak

- Proiektuari buruzko informazioa: Proiektuak nola eta zein neurritan laguntzen duen lurraldearen eraldaketa sozialean eta xede-biztanleriaren bizi-baldintzak hobetzen.
  - Proiektuaren aurrekarien, testuinguruaren eta justifikazioaren informazio argi eta zehatza (gehienez 4 puntu).
  - Xede-biztanleriaren deskribapena: baldintza sozioekonomikoak, eta sexu eta adinaren arabera bereizitako datuak (4 puntu).
- Zehaztasun osoz definitzen dira proiektuaren helburuak, adierazleak eta espero diren emaitzak, bai eta egiaztapen-iturriak ere (gehienez 5 puntu).
- Koherentzia dago ekintzaren justifikazioaren, planteatutako helburuen, proposatutako jardueren eta espero diren emaitzen artean (gehienez 6 puntu).
- Entitate eskatzaileak eta tokiko bazkideak eraldaketa sozialerako daukaten estrategia zabalago batean sartuta dago proiektua; estrategia hori proiektuaren gauzatze hutsaren gainetik dago (gehienez 6 puntu).
- Xede-biztanleriaren parte-hartzea proiektua identifikatzen, egiten eta kudeatzen (gehienez 6 puntu).
- Genero-ikuspegia kontuan hartzea (gehienez 7 puntu).
- Zailtasun bereziak dituzten emakumeentzako, egoera zaugarrian daudenentzako eta/edo diskriminazio- edo bazterkeria-egoeran daudenentzako proiektua izatea (gehienez 4 puntu).
- Diruz lagundutako ekintza egin ondoren, proiektua etorkizunean iraunkorra izatea (gehienez 6 puntu).
- Zarauzko Udalarentzat lehentasunezko interesa duen leku batean garatzea proiektua: Sahara edo kanpotik immigratuta Zarautzen bizi diren pertsona gehienen jatorrizko inguruak edo eskualdeak (gehienez 5 puntu).
- Xede-biztanleriaren balio kulturalak errespetatzea eta bultzatzea (gehienez 4 puntu).
- Jarduera-eremuko natur aberastasuna eta balio ekologikoak errespetatzea eta babestea, kalte ekologikorik sortu gabe (gehienez 4 puntu).
- Proiektua garatuko den eremu geografikoko Giza Garapenaren Indizea (gehienez 6 puntu).

Bideragarritasun ekonomikoa (gehienez 12 puntu):



- Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (gastuen aurrekontu xehatua); jardueren, baliabideen eta kostuen arteko erlazioa (gehienez 12 puntu).

## 8. EBAZPENA

Ebazpena Zarauzko Udaleko Ordenantza orokorrean ezarrita dagoenari jarraiki egingo da.

Organo eskudunak:

- Antolamendua eta instrukzioa (Instrukzio-organoa): Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan adskribitutako teknikaria.
- Azterketa eta baliospena (Balioespen Batzordea): Kide anitzeko organo bat, dirulaguntza ematen duen Departamentuari dagokion informazio-batzordeko kideek osatutakoa.
- Ebazpena (Organo eskuduna): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari egokituko zaio, Udalren administrazio-antolamenduan une bakoitzean indarrean diren eskumenekin eta aldi bateko eskuordetzeekin bat etorriz.

## 9. DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Proiektu bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da 18.000,00 eurotik edo aurrekontu osoaren % 80tik gorakoa izan.

Hautatutako proiektuei emandako dirulaguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren % 100ekoa izango da. Kasu berezietan, eskatutakoa baino kopuru txikiagoa ere eman dezake Udalak, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta justifikatutako arrazoiengatik, baldin eta horrek jardueraren bideragarritasuna kolokan jartzen ez badu.

Onartu beharreko dirulaguntzak murriztu ahal izango dira, denak portzentaje berean, hautatutako proiektuen artean aurrekontu-kontsignazio erabilgarriak soilik partzialki estaltzen duen azken proiekturen bat edo batzuk sartzeko.

Deialdian kontsignatutako kreditua nahikoa bada jarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko, ez da beharrezkoa izango lehiaketaren prozedurak berez dakarren lehentasun-hurrenkera jartzea.

Aldiz, deialdian kontsignatutako kreditua ez bada nahikoa, irizpideak aplikatuta balorazio handiena lortu dutenei esleituko zaie dirulaguntza, kreditu eskuragarriaren barruan eta deialdian jarritako mugarekin. Beraz, jarduerak puntuazio-hurrenkerearen arabera jasoko dute dirulaguntza, aurrekontuaren mugak eta baliabideak kontuan hartuta.

Baldin behin-behineko ebazpen-proposameneko dirulaguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako eskaeran dagoena baino, Zarauzko Udalak eskatu ahalko dio





onuradunari bere eskaera berriz egin dezala, konpromisoak eta baldintzak bat etor daitezen eman daitekeen dirulaguntzarekin. Dena den, eskaera berri horrek ere errespetatu egin beharko ditu dirulaguntzaren helburua, baldintzak, xedeak eta eskaerei jarritako balorazio-irizpideak.

## 10. ZUZKIDURA ETA AURREKONTU-PARTIDA

Deialdi honen bidez dirulaguntzak emateko zenbatekoa gehienez ere 205.000,00 eurokoa da, aurrekontuko 0501.481.02.231.81.2024 partidari egoztekoa.

## 11. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA

Deialdi honen bidez diruz lagunduko diren ekintzen berezitasunei erreparatuta, zenbatekoaren % 70 dirulaguntza ebazten denean ordaindu ahal izango da, eta gainontzeko % 30a diruz lagundutako jarduera amaitu eta hori behar bezala justifikatu ostean.

Dena den, ordainketak aurreratu ahal izango dira (dirulaguntza emateko ebazpenean zehaztutako moduan), baldin eta aurretik justifikatzen bada finantzazio hori beharrezkoa dela diruz lagundutako jarduerak aurrera eramateko.

## 12. DIRULAGUNTZAREN XEDEA JUSTIFIKATZEA

Udaleko Ordenantza Orokorraren 22.1.d) artikuluan jartzen duen bezala, onuradunak bere gastu eta diru-sarrera guztien kontuak aurkeztu beharko ditu (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzen kasuan) edo jarduera edo programa espezifiko bati dagozkion guztiak (jarduera edo programa zehatz bat egiteko ematen den dirulaguntzaren kasuan). Beraz, diruz lagundutako proiektuaren, jardueraren edo programaren % 100 justifikatu behar du. Justifikatutako gastuak aurrekontuan sartutakoak baino txikiagoak badira, portzentaje berean murriztuko da emandako dirulaguntza.

Justifikatzeko, Justifikazio Kontu Sinplifikatua erabili ahalko da, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 75. artikuluan jartzen duen moduan, eta dokumentazio hau edukiko du:

- Dirulaguntzaren emakidan jarritako baldintzak bete direla justifikatzeko jardueramemoria bat; egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziko dira bertan.
  - Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.
  - Dirulaguntza justifikatzeko memorian sexuaren araberako datuak eman beharko ditu (kopuru absolutuetan edo portzentajeetan).



- Jardueraren gastuen eta inbertsioen ordainketaren aitoren arduratsua, honakoak adierazita: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbiderapenak adieraziko dira.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen aitoren arduratsua, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Hala badagokio, aplikatu gabeko soberakinen eta horietatik sortutako interesen itzuleraren ordainketa-gutuna.

“Moneta-unitateak” izeneko lagin-teknikaren bidez egiaztatuko dira gastuaren frogagiriak, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentzia lortzeko.

Edonola ere, gastuen jatorrizko frogagiriak edo froga-balio bereko beste agiri batzuk izango dira gastuen frogagiriak. Agiriok balioa edota eraginkortasun administratiboa izango dute merkaturako trafiko juridikoan, erregelamendu bidez jarritakoaren arabera. Hegoaldeko herrialde pobretuetan egiteko proiektuen justifikazioetan ere onartuko dira gastuen justifikanteen fotokopiak, baldin benetakotasun-ziurtagiri batekin badatoz eta proiektuarekiko zuzeneko lotura adierazten bada kontzeptuan.

Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehenasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.

### **13. PROIEKTUA GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO EPEA**

Dirulaguntza eman den urtean bertan hasi behar da proiektua, eta gehienez 15 hilabeteko iraupena izango du, dirulaguntza hartzen denetik kontatzen hasita. Dena den, Zarauzko Udalarari jakinarazi beharko zaio zein egunetan hasi den esku-hartzea.

- Programa garatzeko arduradun bezala adierazitako taldeari edo erakundeari egindako diru-transferentziaren justifikantea aurkeztu beharko da.

Diru-transferentziaren justifikazioa 2 hilabeteko epean egin beharko da, dirulaguntza jaso zenetik kontatzen hasita.

- Diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik gehienez ere 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko dira gastuen frogagiriak, jarduera memoria eta memoria ekonomikoa.

### **14. JARRAIPENA**

Udalak erakundeei deituko die kooperazio proiektuen jarraipena eta ebaluaketa egiteko.



## 15. PUBLIZITATEA

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.

Horretarako, administrazio emaileak erabakitako deialdiei eta ebazpenei buruzko informazioa bidaliko dio BDNSri, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez.

Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.

Dirulaguntza jasotzen duen entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak diruz lagundu duela jarduera.

Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.

Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen publizitatea egin beharko dute, zenbatekoa eta helburua adierazita, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:

- Entitate pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.
- Interes sozial edo kulturalerako helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienek jatorri den Administrazio Publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikokoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko

## 16. EBAZPENEAN ALDAKETAK EKAR DEZAKETEN ARRAZOIAK

Elkarte onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, dirulaguntza eman duen organoari eska diezaiokete ebazpenean ezarritako epeak luzatzea dakartzaten aldaketak, emandako diru-kopurua murriztea edo jardueran sartzen diren ekintzen aldaketa egitea; aldaketa horiek baietza jasoko dute ezusteko baten ondorioz sortuak izan badira edo jarduera ondo burutzeko beharrezkoak egiten badira, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo xedea aldatzen ez bada eta inoren eskubideak kaltetzen ez badira.



## 17. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

1. Oinarri hauetan edo dirulaguntzaren emakidan jarritako edozein betebeharrak betetzen ez bada, berriz aztertuko da dirulaguntza, eta, horren arabera, emandako dirulaguntza baliogabetu, murriztu edo itzuli beharko da, abenduaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzei buruzkoak, 37. eta 52. artikuluetan eta hurrengoetan aurreikusten duen baldintzetan.

Jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira, eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutze-interesak ere bai. Itzulketa hori Zarauzko Udaleko Ordenantza orokorrean jarritako prozeduraren arabera egingo da.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta egindako lanen eta proiektu guztiaren eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

## 18. ARAUDIA

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokor Arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.) eta Gizarte Zerbitzuak Departamentuko dirulaguntzak emateko Oinarri Espezifikoak (Gipuzkoa Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66 zk.).

## 20. ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; edo zuzenean inpugnatu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean.

Epeak, bi kasuetan, oinarri hauen argitalpenaren biharamunetik hasita kontatuko dira.